



1. artikulua.- ERREGELAMENDU HONEN HELBURUA ETA ERAGIN-EREMUA

Araudi honen xedea da Laudio udalerri barruko udalaren jabetzapeko eta onura eta erabilera publikoko herri-baso eta auzo-basoetan gaur egun dauden eta etorkizunean sortu ahal diren larreen aprobetxamendua eta gozamina arautzea. Edozein kasutan, abeltzaintza eta larreratzea egin beharko da Erregelamendu hau garatzeko udalaren erabakiz zehaztuko diren arlo eta lekuetan soilik, beren beregi adieraziko den aldirako eta larreen inguruabarren egoerak hala aholka dezatenean, Udalak berak aldaraziko ditu baldintzapen horiek.

Laudio Udalak baimendu ahal izango larrean aprobetxamendua eta ustiapena erregelamendu honetan eta martxoaren 26ko 11/2007 Arabako Lurralde Historikoko Mendiak arautzen duen Foru Arauko V, Tituluan, bereziki Bosgarren Kapituluaren garatutakoan xedatutakoarekin baterako terminoetan.

Xede horretarako, abeltzaintza herri-basoetan bateragarri egingo da larreen kontserbazio eta hobekuntzarekin, egungo larreen antolamendua, perfektzionamendua, are horien hedapena edo / eta aldarazpena ere saiaturiko delarik, basoen eta landaredi multzoen inolako kalterik sortu barik.

Zuhaitzez betetako basoetan, erabateko lehentasun osoa emango zaie oihan-beharrizanei, abeltzaintza mugatu ahal izanik oihan-beharrizan horien erabilera eta kontserbaziorako era nabarmenean kaltegarri suerta dadinean, eta are debekatu ere egingo da helburu horiekin bateraezina suerta dadinean.

2. artikulua.- LARREAK ZEINTZUK DIREN ETA NON DAUDEN

Larrean aprobetxamendua egin ahal izango diren esparruak eta arloak, beti ere, martxoaren 26ko Arabako Lurralde Historikokoaren Mendiak arautzen dituen martxoaren 24ko 11/2007 Foru Arauan (07-06-13ko 44 zk. duen ALHAOn) eta Erregelamendu honetako xedapenak betez, grafikoki 1. eranskinean identifikatuta daude eta ondorengo hauek dira:

72 zenbakidun Herri Onurako Basoa -HOB-.- AMEZTUI.

Larre azalerak	0,00 Ha
Zuhaitz edo/eta zuhaixkadun larrearen azalerak	0,9265 a (0,70)*

73 zenbakidun Herri Onurako Basoa -HOB-.- ARRANÑO NAGUSIA.

Larre azalerak	12,30 Ha
Zuhaitz edo/eta zuhaixkadun larre azalerak	45,9374 Ha (34,45)*

74 zenbakidun Herri Onurako Basoa -HOB-.- ARRANÑO TXIKIA.

Larre azalerak	18,2627 Ha
Zuhaitz edo/eta zuhaixkadun larre azalerak	3,4447 Ha (2,58)*



75 zenbakidun Herri Onurako Basoa -HOB-- IÑARRONDO.

Larre azalerak	11,8073 Ha
Zuhaitz edo/eta zuhaixkadun larre azalerak	36,6999 Ha (27,52)*

76 zenbakidun Herri Onurako Basoa –HOB-- MOSTATXA eta PAGOLAR.

Larre azalerak	9,7962 Ha
Zuhaitz edo/eta zuhaixkadun larre azalerak	15,3275 Ha (11,50)*

77 zenbakidun Herri Onurako Basoa –HOB-- ZENAGORTAGANA

Larre azalerak	1,1718 Ha
Zuhaitz edo/eta zuhaixkadun larre azalerak	7,3334 Ha (5,50)*

Santa Anako landa, belaze edo larrea.

Larre azalerak	1,0917 Ha
Zuhaitz edo/eta zuhaixkadun larre azalerak	0,00 Ha

BELAR ETA LARRE AZALERAK GUZTIRA 164,08 Ha

* (Azalera guztiaren % 75. Larreetarako azalera probetxagarria).

Azalera hori zenbatekoa den urte oro adierazi deklaratu da, eskaerak aurkezteko epea zabalduko denean eta Udal honetan gauzatuko dituen kudeatze eta egindako azterlanen arabera aldaketak edo aldarazpenak izan ditzake azalera horrek.

3. artikulua.- ONURADUNAK

Larreen ustiapena eska dezakete ondorengo pertsona ala entitate hauek:

- Laudio udalerriaren mugartean egoitza duten auzokide edo legez eraturako abeltzainen elkarteak.
- Larreratzeko usadiozko eskubideak dituzten auzo-udalerrietako auzokide edo legez eraturako elkarteak, beti eta udalerriko auzokideen eskaerekin ganadu- eta abere-zama gainditu ez bada.
- Udal honekin arlo honetan akordioak sinatu dituzten udaletako auzokideak, beti eta udalerriko auzokideen eskaerekin ganadu- eta abere-zama gainditu ez bada.

Horiek guztiak bermea ordaindu beharko dute (martxoaren 26ko 11/2007 Mendien Foru Arauko 36. artikuluekin bat) larreen edo baso-larreen sistemari kalteak eragiteko arriskua bere baitan izan ditzaketen larreratzeko abeltzaintza baldintzak onar daitezenean, hala nola negu garaiko abeltzaintza, e.a. Bermearen zenbatekoa zehaztuko da baldintza horietan dagoen norbanakoaren eskaera bakoitza aztertuz eta kontuan izanik ipiniz iristeko bideei eta herri-larreei gerta ahal zaizkien arrisku eta kalteen peritu azterlan zehatz mehatsak xehakatu eta banakatuta eta egiaztatutako teknikariak erredaktatuko du.

4. artikulua.- ONURADUNEN BETE BEHARRAK



Onuradunek ondorengo betebeharrak bete behar dituzte dokumentuen bitartez egiaztatu eta ziurtatu behar dituzte eskaera aurkezteko unean. Hauek dira:

- a) Adinez nagusiak izatea eta erretiratu gabekoak, adingabe emantzipatu edo epaitegiz gaitutakoa eta abelazkuntzan jardutea, larre izaera duten bere lur propioetan lan eginez.
- b) Izena emanda egotea zinegotziaren erroldan, gutxienez ere urte bateko antzinasunaz eta, gainera, Udal biztanleen erroldan sartuta egotea, salbu eta nekazari gazteak badira; kasu horretan Udalak salbuetsi ahal izango du antzinasuneko erregistroa.
- c) Egoiliarra izatea udalerrian benetako formaz, gutxienez ere, urteko 10 hilabetetan zehar.
- d) Udalarekiko zerga eta tributuen betebeharrak beteta eta eguneratuta izatea.
- e) Arabako Foru Aldundiaren Abelazkuntza Ustiapenen Erregistroan izena emanda, inskribatuta eta ganadu etxalde ala funts baten titularrak izatea.
- f) Ganadu berorrenzako terreno edo/eta alojamendu nahikoa eta egokia teknikoki eta ingumen aldetik eskura izatea beharrezkoa den denboran zehar eta dokumentu bidez frogatzeko eran, auzokidea den herrian bertan, halako moduz ezen ahalbidera dezan ganadua eta abereak bertan egotea eta elikatzea bazka eta anabaka baliabide propioz basoan egoteko gai ez diren aldietan zehar, larreak ustiatzeko espezieen paralizazio ala geldotze begetatiboagatik edo osasun arloko berrogeialdi arrazoiengatik, basoaren egoera fisikoagatik edo egote hori baimentzen ez duen besten edozein arrazoiengatik.

Salbuespen legez eta izaeraz, onar daiteke abelazkuntza ustiapena erroldatuta dagoen herrian ez egotea, beti eta honako baldintzak betetzen baditu:

- o Kortaratu beharreko ganaduaren mobilizazioa, gehienez, 12 ordutan egitea ahalbideratuko dien erradio batean kokatuta egotea.
 - o Abeltzainaren erroldatze herriarekiko hurrekotasuna.
 - o Denbora eta lanaldi osoko eskuragarritasuna abeltzaintza jarduerarako eta abelburu kopururako. Titularrak egiaztatu beharko du aipatu diren instalazio horietan, larreratzeko eskubidea lortutako ganaduaren presentzia, badarabilela eta maneiatu ondo maneiatzen duela.
- g) Betetzea, saneamendu kontrola eta abereen mugimenduei dagokienez, indarrean dagoen araudiaren ondoriozko betebeharrak .
 - h) Ustiapenerako baimena lortuta edukitzea, larre ustiapenari ekin aurretik.
 - i) Ganadua markatuta edukitzea aldeztu aurretik eta banaka eta buru bakoitzeko, ofizialki aitortutako sistemekin eta, gainera, behi, zaldi-behor, ahuntz-aker eta asto ganaduaren kasuan udalaren ganadua identifikatzeko zenbakidun belarritakoarekin. Abeltzainek informatu beharko dute belarritako berrien beharritanik badago.
 - j) Errespetatzea birlandatzearako eta birsortzeko ipinitako itxitura eta hesiak, hala nola suteen ostean mugatu eta hesitutako azalerak.



- k) Lurra lantzea eta abereei kasu egitea berak era zuzen eta pertsonalean, edo titularrarekin batera elkarrekin bizi diren familiarren laguntzaz, soldatapekoak erabili barik, nekazal ustiapenaren urtaroko beharizanen inguruabarrengatik izan ezik. Betebehar hori ez da kontsideratuko bete gabe, nahiz eta soldatapeko bat edo bi erabili, titularrari eratorritako gaixotasun kasuan edo gorago definitutako forman lan pertsonalarekin jarraitzea eragozten dion beste edozein kasuan.

Nortasun juridikodun auzokide elkarteak badira, goian adierazi diren betebeharrak kide guztiek bete beharko dituzte.

Larreen erabilera gaitasuna beteko ez balitz, Udalak aipatu den ustiapen hori esleitu ahal izango du lehiaketa bitartez lehenago azaldutako betebeharrak betetzen dituzten abeltzainen artean, herrian erroldatutakoan artean izan ezik eta horretan lehentasuna edukiko du:

- o Auzoaren hurbiltasuna.
- o Abeltzain gaztearen izaera.
- o Ustiapen hori printzipala izatea.

Kasu horretan, ordaindu beharreko kanona izango da, gutxienez ere, urte oro finkatutako kuota bider 1,5.

Hala ere, larreen ustiapena ez balitz beteko, Arabako Foru Aldundiak erreserbatuta dauka lehentasun eskubidea ustiapenaren gainean, martxoaren 16ko 11/2007 Mendien Foru Arauan adierazita dagoen legez.

Aukako kasua geratuz gero, hau da, larreetara ganadua sartzeko eskaerak ganadu zama onargarria gaudituko balute, Udalak mugatu egingo du larre bakoitzeko onartu beharreko abelburuen zenbatekoa, lehentasuna emanaz abeltzainei jarduera printzipala eta nagusia dutelako, martxoaren 26ko 11/2007 Mendien Foru Arauan adierazitakoari jarraiki, irizpide teknikoak, ingurumenekoak eta gizartekoak kontuan izanik finkatuko diren moduluen arabera.

5. artikulua.- ESKARIAK

Larreen aprobetxamendua Udalak emango du alde zuretik interesa duenak eskaria aurkeztuta. Eskarian azaldu beharko dira datu hauek:

- a) Eskatzailearen datu pertsonalak: izena eta abizenak, NAN, lanbidea, helbidea, telefono finkoa eta mugikorra eta posta elektronikoa, ustiapen zenbakia.
- b) Pertsona juridiko baten kasuan, bere ordezkartzan aritzeko egiaztapena aurkeztu beharko da eta IFZ.
- c) Larreen ustiapena eskatzeko dituen arrazoi, zio eta gora beherak.



- d) Larreratuko duen ganadu eta abelburu bakoitzaren identifikazio zenbakia eta dagokion erregistroan duen inskripzioaren agiria.
- e) Erregelamendu hau eta larreen gaineko udal erabaki guztiak bere osotasunean eta termino guztietan onartzeko konpromisoa eta baimena emateko Udalari bere datuak sartzeko Udaletxean sortutako abeltzainen erregistroan udaleko larreak kudeatzeko eta Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari eskatzeko ustiapen horiek era zuzenean kudeatzeko beharrezko litzatekeen datu oro, izaera pertsonaleko Datuen Babeserako 199-12-12ko 15/1999 Lege Organikoan adierazitakoarekin bat (1999-12-14ko 298 zk. duen EAO).

Eskariarekin batera aurkeztu beharko da dagokion Alkatetzako ziurtagiria, eskatzailearen auzokide eta egoiliarra izateari buruz udalerrian.

Ez da onartuko lehenago aipatutako betebeharrak betetzen ez duen eskaririk edo ezarritako epez kanpo entregatzen baldin bada.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertzerakoan, Udala konturatzen bada eskatutako edozein betebeharrak falta dela egiaztatzeko, horren berri emango dio eskatzaileari eta 10 eguneko epea eskainiko dio, jakinarazpena hartu duenetik hasita, hutsunea zuzendu ahal izateko, ohartaraziz ez badu zuzentzen, bere eskaria artxibatuta geratutako dela, gehiagoko izapiderik gabe

Erregelamendu hau onartu osteko lehen urtean, nahitaezko betebeharra izango da hauxe kreditatzen duen dokumentazioa entregatzea: ganadu horrentzako terreno edo/eta alojamendu nahikoa eta egokia teknikoki eta ingumen aldetik eskura izatea beharrezkoa den denboran zehar, auzokidea den herrian bertan, halako moduz ezen ahalbidera dezan ganadua eta abereak bertan egotea eta elikatzea bazka eta anabaka baliabide propioz.

Horren ostean, urtez urte jakitera emango da eskaeran hasiera batean entregatutakoarekiko dauden aldaketa posibleak.

6. artikulua.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Onuradunen betebeharrak hauek dira:

- a) Larreak erabiltzea udalak zona bakoitzerako adierazitako epeetan eta berariaz adierazitako duen intentsitateaz, aurretiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aldeko txostenaz.
Baimen alditik kanpo ezin da larrerik ustiatu.
- b) Ez erabiltzea larreak baimendutako xedeetarako edo beste aparteko helburuetarako.
- c) Errespetatzea Udaletik baimendutako erabilera eta ustiapen guztiak.



- d) Indarrean dagoen abereen osasunari buruzko araudia betetzea eta dagozkien osasun-programa eta kanpainetan sartuta egotea. Hala abeltzain ustiapenenean dagoen ganadua, nola larre barrutietara sartuko dena, saneatuta, osasunez sasoiari eta sano egon beharko da.
- e) Ordaintzea kanona Udalak erabakitakoa ekitaldi bakoitzerako eta Udalak ezar lezakeen beste edozein ere.
- f) Komunitate edo Auzolanetan parte hartzeko eta sortutako erabilerarako balio izateko moduko egoeran larreen mantentze-lanen kostuak ordaintzeko benetako eta egiazko jarrera.
- g) Auzokide eta Udalaren artean helburu honetarako sortuko den Jarraipen Batzordean parte hartzea. Jarraipen Batzordeak bere jardunerako barruko arau propioak egokituko ditu.
- h) Larre barruetan burdin haria ipintzearen bitartez ez egitea barruko itxiturarik edo zatikako banaketarik barrutietan, salbu eta belar eta larreen iraunarazte, mantentze-lan eta hobekuntzarako teknikoki nahitaezkoa eta derrigorrezkoa irizten zaionean.
- i) Errespetatu beharko dira basoetan egon daitezkeen pasabide zorrak zein hesi itxiturak.
- j) Europako erakundeetatik jasotako diru-laguntzaen berri ematea, zehaztu ahal izateko Udalari ere ematerik dagokion ala ez, indarrean dauden legetan oinarrituta.

7. artikulua.- BAIMENIK GABEKO GANADUA

Kasua bada larrera baimenik gabeko ganadua sartu dela, abeltzain erabiltzaileek konpromisoa hartu dute Udaletxeari berehala horren berri emateko idatziz, partaide diren Abeltzain Elkartearen bitartez ala norbanako eran, beti ere zerbitzuak ziurtatuko duelarik salatzailearen izen-abizenen anonimata.

Udalak, bere kabuz ala beste erakunde publiko batzuen edo, kasuan kasuko, Abeltzain Elkarteen laguntzaz, baimenik gabe larrera sartutako ganadua kanpora bota dezake, abere horien jabeen erantzukizunak eskatuko zaizkielarik.

Oro har, debekatuta dago etxe-abere espezie libre edo abeltegiko basatiak, hala nola kimu berrien jatunak eta enbor-azalen karraskariak diren aker-ahuntzak ala orein-orkatzak, basoetan bazkatzen edukitzea, salbuespeneko justifikatutako kasuetan izan ezik betiereko hostozabalen basoetan. Onartuko den justifikatutako salbuespen bakarra da artzainak gidatutako artaldearen ahuntz gidariaren kasua da.

Hala ere, urte oro informatuko da ganadu horrek sarrera baimenduta dauzkan basoko zein arlo zehatzak diren, sastraka larregi duten edo / eta sute arriskua duten zonen erregenerazioa errazteko. Xede horretarako proiektu teknikoak prestatuko da landaredia eta faunaren babeseta eta basoaren kudeatze iraunkorra zainduko duena.



Ez da baimenduko ere, kirol edo aisi aldiko instalazio hipikoetakoak diren eta bertako arrazakoak ez diren ekidoen, zaldizkoen, basoetako abeltzaintza.

8. artikulua.- GANADU ZAMA

Larreek jasan beharko luketen gehienezko ganadu zama ertaina ondoren zehazten dena da. Kasua balitz, zama hori gainditzea edo zama horren azpi-erabilpena egitea, 4. artikuluan adierazten den legez jardungo da. Ez da gainditu behar, sekula eta inoiz ere ez, 1,5 UGM/ha baino gehiago gain-zama puntaletan.

Arraño Handia Larrea	1,00 UGM/Ha
Arraño Txikia larrea	1,00 UGM/Ha
Elorritxugana larrea.	1,50 UGM/Ha
Mostatxa-Pagolar larrea	1,50 UGM/Ha
Kamaraka-Goikomendi-Alpitxu larrea	1,50 UGM/Ha
Santa Ana Larrea	1,00 UGM/Ha

9. artikulua.- NEGUALDIKO ATSEDENA

Udal larreetan bazkatzea amaitu beharko da, gutxienez ere, urte bakoitzeko urtarrila eta maiatza arteko bi hilabetetan zehar, larreak erregeneratzea eta birsortzea errazteko objektuz, hala nola abereen sanitate eta osasuntze programak gartzea eta identifikatu gabeko ganaduaren kontrola errazteko.

Larreratzearen etete aldia ez da sekula bi hilabete baino txikiagoa izango, beti ere urtarrilaren 1etik maiatzaren 15era bitartean, eta erabakita geratu ohiko izaeraz ondorengo egutegiaren arabera:

Arraño Handia Larrea	Urtarrilaren 1etik apirilaren 1era*
Arraño Txikia larrea	Urtarrilaren 1etik apirilaren 1era*
Elorritxugana larrea.	Urtarrilaren 1etik martxoaren 15era*
Mostatxa-Pagolar larrea	Urtarrilaren 1etik martxoaren 15era*
Kamaraka-Goikomendi-Alpitxu larrea	Urtarrilaren 1etik martxoaren 15era*

* Bi egunak barne.

Eguraldiaren baldintzapenengatik edo beste aurreikusi ezineko beste egoera batzuenengatik, aparteko izaeraz, ezarritako egutegi hori molda ala alda daiteke.

Neguko atsedeen aldietan zehar ezin izango da basoan egon abelbururik batere, abeltzainaren erantzukizuna delarik bere abere taldera erretiratzea. Arau hau ez betetzea eta haustea kontsidera daiteke baimenik gabeko abeltzaintza dela, legozkiokeen beste arau-hauste batzuen kalte barik.

10. artikulua.- BAIMENAK BALIOGABETZEA

Emaniko baimenak Udalak baliogabe utzi eta ezaba ditzake, ondorengo kasuotan:



- a) Onuradunak ez erabiltzea edo gutxiegi erabiltzea larrea, bere eskaeran adierazitakoarekin bat eta arau-hauste eta isun edo zigorren atalarekin bat.
- b) Basoari egindako kalteengatik onuradunak isuna eta zigorra jaso badu.
- c) Ez ordaintzea, ezarritako epeen barruan, Udalak ipinitako kanona eta tasak.
- d) Erregelamendu honetan ezarritako auzokide edo egoiliar izaera galtzea.
- e) Onuradunak arbuioa ala uko egitea.
- f) Larreak erabiltzea baimendunaz aparteko beste batzuek.
- g) Esleitutako eta izendatutako larreak erabiltzeko eskubidearen, edozein titulu bitartez, transferentzia, salbu eta transferentzia hori familia unitate zuzenaren barruan gertatu bada.
- h) Toki Administrazioarekiko edozein motako zerga betebehar eta obligazioak ordaintzerakoan egunean ez egotea.
- i) Ez parte hartzea Auzolanetan, lan komunitarioetan, ez eta larreen mantentze-lanetarako beharrezko irizten diren kostuak ordaintzean ere.
- j) Ez parte hartzea Jarraipen Batzordean eta Administrazioetik eginiko edozein errekerimendu ala eskaerari jaramonik ez egitea.
- k) Ez markatzea era egokian udal belarritakoarekin bere etxe-abere guztiak baldin badira zaldi-behorrak, astoak, aker-ahuntzak edo ardi-ahariak.
- l) Eragozteko larreen erabilera Udalak beren beregi eta berariaz baimendutako gainerako beste interesatu batzuen aldetik.
- m) Larreetarako xederatutako lurak beste erabilera batzuetarako erabiltzea, interes publikoagatik edo Udalak onartutako proiektuen ondoriozko obra eta lanak burutzeko.
- n) Ganaduari jaten ematea basoan lurzoru azalera txikietan, lurzoru horren gehiegizko zapaltzea eta konpaktazioa sorrarazten dutelako.

11. artikulua.- BAIMENAREN IZAERA

Udal herri- eta auzo-basoetan larreak erabiltzeko Udalak emandako baimena, inorenganatu ezina da, salbu eta besterentzea eta transferentzia familia unitate zuzenaren barruan bakarrik egin bada. Xede horietarako, familia unitatetzat hartuko da zorrozki familia gune bakarrak eratutakoa soilik.

12. artikulua.- IKUSKAPENAK

Laudio Udalak, eta Nekazaritzako Sailak, zein Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritzak, edozein momentutan egin ditzakete egoki irizten dituzten ikuskapenak eta aholkuak eman hartu beharreko neurrien gainean larre hauek hobe ustiatzeko, zeintzuk seinalatuko diren Udalak hartuko duen berariazko ebazpenean.

Basoan identifikatu gabe lokalizatzen abelburuak jabe gabetzat hartuko dira eta Arabako Foru Aldundiko edo Udaleko dagokion sailak bahian hartu eta erretira ditzake, beraien kargu eginez edo 15 eguneko epean zehar zainduko dituen gordetzaila izendatuko duelarik; epe horretan zehar horien ugazaba ala jabearen eskura egongo dira eta izaera hori



duela ziurtatu eta egiaztatu ostean, entregatu egingo zaizkio, aurretik ordainduta sorrarazitako gastuak, kalteak eta galerak eta, hala bada kasua, ezartzea egokituko liezazkiokeen isun eta zigorren aparte. Epea amaituta, ganadu hori enkante publikoan salduko da.

13. artikulua.- KANONA

Larreen gozamenerako urtero Udalari ordaindu beharko zaion kanona, Korporazioaren Osoko Bilkurak finkatuko du kontuan hartuz nekazaritza eta abeltzaintza irizpideak, hala nola Arabako Foru Aldunditik adierazitako oharpenak.

14. artikulua.- JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen Batzorde bar sortuko da, kontsulta, aholkularitza eta koordinazio organo legez, larreen erabilera eta ustiapena hobetzeko gai ei buruzkoa.

Jarraipen Batzordea eratuta egongo da honako kide hauekin:

- a) Hiru (3) ordezkari Laudio Udalak bere teknikari eta zinegotzien artean izendatukoak.
- b) Lau (4) ordezkari larreak ustiatzeko baimendutako abeltzain guztien artetik.. Lau ordezkarietatik, soilik bik (2) edukiko hizpide eta bozketa eskubidea, gaineko beste biek parte hartu ahal dutelarik euren hizpideaz, baina bozkatzeko eskubide barik.
- c) Halaber, Batzordean parte har dezake, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko ordezkari batek, hizpideaz, baina boto barik.

Aldundiko ordezkari itza horrek bozka eskubidea edukiko soilik herriaren onurako basoetan dauden larreen gaiak tratatzen direnean.

Udalak beretzat erreserbatu du eskubidea Batzordean parte hartzera egoki irizitako teknikariei gonbitea luzatzeko.

14. artikulua.- LARREAK HOBETZEKO AZTERKETAK

Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren lankidetzaz, Udalak aldiro egingo ditu beharrezko azterlanak zehaztu ahal izateko sortutako larre horien erabateko ustiapena eta bete-betekoa egin ahal izateko baldintzak, beti eta hori larreen iraunaraztea eta hobetzearekin bateragarria baldin bada; ateratako ondorioak administrazioarentzako oinarri izango dira, hurrengo urteetan ere, herri onurako basoetan larreak izateko.

16. artikulua.- ARAU-HAUSTE ETA ISUNAK

Larreen ustiapenerako indarrean dagoen araudiaren aplikazioaren kalte barik eta Ordenantza honetako gainerako artikulatuarekin batera aplikagarriak diren ondorioez gainera, forma espresatuan finkatuta geratu da Arabako Lurralde Historikoko Mendiak



arautzen duen Foru Arauko Zazpigarren Tituluan jasotako arau-hausteeak, azaroaren 21eko 43/2003 Legean xedatutakoez gain, edozein kasutan ere, euren jatorrizko erregulazioa eta dagozkien eguneratzeak errespetatu egin behar dituztela, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zehapen zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko xedapenetan garatutako Zehatzeko eta Zigortzeko Prozeduran ebatzitakoa ere. Gainera, eta era zehatzagoan, zigorrak hiru kategoriatan garatu dira: zigor arinak, larriak eta oso larriak.

- Arinek, erakarriko dute ohartarazteko, suspentsio edo baimenaren anulazio ezabatze zigorra.
- Larriek erakarriko duten zigorra izango da baimenaren suspentsioa urte batetik hiru urterako denbora batez.
- Oso larriek erakarriko duten zigorra izango baimenaren suspentsioa hiru urtetik hasi eta behin betiko anulaziora arte.

Falta arinak hauek izango dira:

- Larrea gutxiegi edo azpi-erabiltzea onuradunak
- Komunitateko zereginetan eta auzolanetan ez parte hartzea.

Falta larriak kontsideratuko dira:

- Onuradunak larrea ez erabiltzea
- Basoan kalteak sorrarazteagatik isuna.
- Ez ordaintzea Erakunde honek ezarritako kanona edo beste tasa batzuk.
- Larrea erabiltzea baimendutakoaz bestelako erabileretarako.
- Ez eramatea ganadua aldean ipinita dituela Larreen Batzordean erabakitako identifikazio sistemak, hala nola gai honetan eskumenak dituzten Arabako Foru Aldundiarenak edo beste Administrazio edo Organismo batzuenak. Udalaren belarritakorik ipinita ez edukitzeak erakarriko du, gainera, ganadua kanpora bota eta aterako dela.
- Ganadua basora botatzea atsedenerako markatutako aldien barruan edo baimenik gabeko ganadua botatzea.
- Ahalbideratzea ganadua basoetan sartzea, baso horietan birlanaketa egin ostean, basoa bizi-bizian datorrenean eta larreratzeko guneetan berariaz sartu gabe daudenean.
- Behar den legez abisatuak izan ostean, ez joatea behar den arintasunaz suteak itzaltzeko lanetan laguntzera, basoetan zuzen edo zeharka, ustiapen motaren bat edukita. Gainera, auzo ustiapenez gozatzeko aukera kendu egingo zaie bi eta sei urtera bitartean baloratuko den aldi batean zehar, Zigor Kodean oinarrituta euren gainean hartu ahal izan duten zigor erantzukizunen kalte barik.
- Ganadua sartzea erretako lurretan, ezarritako debeku aldia amaitu baino lehen.
- Izaera arineko bi falta edo gehiago burutzea.

Falta oso larritzat hartu dira hauek:



- Izaera larriko bi falta edo gehiago burutzea.

Falta arinak bi hilabeteren buruan iraungiko dira, larriak sei hilabetera eta oso larriak urtea betetzerakoan. Isunaren graduazioa egingo da txosten tekniko kualifikatuaren bitartez; bertan baloratuko dira kalteak, izan duten iraupena, urtaroa edo sasoia, egoera, legez kanpoko sarrera, birlandatutako landaredi masaren adina edo/eta egoera, inbaditutako zonaren ezaugarri propioak, e.a., eta, edozein kasutan, sorrarazitako kaltea ordaindu egin beharko da.

Laudio, 2010eko ekainaren 7a.